



Zapatu arratsaldeak ere, Olgetan!

4 eta 10 urte arteko umeentzako aisialdirako espazio berri bat sortu dugu

Asko aldatu da aisialdia bizitzeko modua. Berdeguneetan elkartzen gara orain, bizia hartu dute inguruetako plazek, jolastokiek, elizpeek. Umeen barbaroa entzun daiteke kaleetan, batez ere eskola-orduak amaituta, arratsalde eguzkitsuetan. Beste aukerarik ezean, familiak eurak bihurtu dira aisialdiaren protagonista nagusi, eta ederra izaten ari da. Ederra da jolaserako denbora hartzea ere, eta beste ezertarako presarik gabe, orduak eta orduak horretan igarotzea, elkarrekin jolasean.

Aisialdi hezitzailea euskaraz
Durangon, ume eta gazte-

txoei zuzendutako euskarazko aisialdi hezitzailearen gabezia ardura iturri izan da, urteetan, Berbaroren tzat. Hutsune horretatik, eta egiteko gogotik, sortu zen duela bost urte Itzartu Gazte Taldea. Ordutik, gazte eta hezitzaileak hilean behin elkartzen dira eurek eta eurentzako sortutako aisialdi ereduaz gozatzeko. Biba zuek!

Ludotekarekin, hala ere, saiatu eta ezinaren arteko borrokan aritu izan gara beti. Azken urteetan, Durangon, hamaika egitasmo eta proiektu alternatibo lantzen ahalegindu izan gara. Jolasaren Txokoa, Plateruenan Olgetan edo

Irakurketa Txokoa horren adibide dira. Esperientzia aberasgarri eta hezitzaileak izan dira denak, baina aldizkakoak, joan eta etorririkoak. Horrek eragin du hutsunerik handiena, espazio finko baten beharrak, hain zuzen ere.

Izan ere, umeez ari garenean, proiektu batek hezigarri izateko erreferentzialtasuna behar du. Haurrari bere egingo duen inguru bat eskaini behar zaio, espazio eroso bat, eta konfiantzazko bidelagunak. Horretarako, Durangon Ludoteka finko bat behar-beharrezkoa da.

Olgetan Ludoteka
Behin-betiko Ludoteka as-

matzeko bidean, Olgetan Ludoteka jarri dugu martxan Landako Gunean. Apirilean hasi eta ekainaren 19ra bitarteko zapatuetan, 16:00-19:00 ordutegian.

4 eta 10 urte arteko ume eta gaztetxoentzat esperimentaziorako, eskulanetan aritzeko, irakurtzen lasai egiteko eta beste hainbat ekintza egiteko guneak atondu ditugu Landako Gune 2. moduluan, momentu oro lau bidelagunek lagunduta.

Izen ematea Berbaroren webgunearen bitartez egingo da, aste bakoitzeko astelehena eta asteazkena bitartean, eta plazak mugatuak dira.

Hausnarketa lantaldea martxan

2021arekin batera, hausnarketa lantaldea ipini dugu martxan Berbaron. Lantalde hau sortu dugu egiten ditugun proiektuei eta zabaldu beharko genituzkeen ate berriei buruz aritzeko. Hamarkada berria hasi dugu urte honekin, eta pandemiak areagotu egin du lehendik zetorren digitalizazioa. Era berean, elkarrekin egoteko ditugun moduak aldatu dira, eta, beraz, beharrezkoa ikusi dugu horren inguruan hausnartzea, euskara sustatzen jarraitu behar baitugu sortzen ari diren esparru berrietan ere.

Uste dugu horrelako foro bat eraikitzea aukera aparta dela eztabaidatzeko gune antolatu eta ordenatu bat izateko, askotan sartuta egoten garen zurrumbilotik irten eta hausnarketarako tartetxo bat hartzeko, eta elkartearen zereginak eta perspektiba lantzeko, eguneroko zeregine-tatik harago.

Momentuz, barrura begirako hausnarketa batzuekin hasi gara: langile eta hezitzaileen formakuntza beharrak, elkarteko hizkuntza irizpideen eguneratzea eta hezitzaileentzat irizpideen dokumentu berria sortzea.

Asmoa da lantalde honen dinamizazioa eta eztabaida batzuk lantaldeko kideek bideratzea. Eztabaida potoloagoen kasuan, Zuzendaritza Batzordeko kideekin batera egitea da intentzioa, eta, aurrerago, interesa izan dezaketen bazkideak gonbidatzea edo gaian aditua den norbait ekartzea ere bai.

Udaleko Euskara Kontseilua berritu da

Albisteak izan daiteke baina ez da berria. Urte biko (2020 madarikatua barne) etenaren ostean, udalak berriro ere ipini du martxan Euskara Kontseilua. Garaiak, abaguneak, norabideak aldatzen doazen heinean, funtzionamendua ere une bakoitzera egokitu behar izaten da; eta intentzioetako bat hori dela, apirilaren azken astean batu gara udal ordezkariak, euskalgintzako ordezkariak eta norbanakoak.

Kontseilu. Gomendio, aholku... Berba higituak ei dira, esanguraz hustuak erabileraren erabileraz. Hitzak hitz, Kontseilu aholku emaile izango da berpiztu duguna, ekarpen eta eztabaida gune, udaleko beste kontseilu batzuen antzeko organoa, esaterako, Berdintasun edo Eskola Kontseiluak.

Makulu. Euskararen erabilera, aurrerapena, herritarren hizkuntza eskubideak... Udalarentzako makulu garrantzitsua izan daiteke Kontseilua aipatutako guztiari buruz eusteko, lehentasuna eta helburuak ezartzeko, neurriak proposatzeko eta, azken finean, herritarren kezak eta nahiak azaleratu eta asebetetzeko.

Akuilu. Inor baztertu barik, herri euskalduna gura dugu, horretan ari baikara Berbaron, sorreratik. Hogeita hamabi urtean ari gara akuilu izaten, eta Kontseiluan ere akuilari izango gara gure batzordeekin batera, elkarlanean; hori baita gure asmoa.

Badator 2021eko udalekuetarako programa oparoa

lazko ohiko udalekuak bertan behera utzi behar izan genituen, itxialdiak luze jo zuen eta momentuan ez ginen gai izan ume eta hezitzaileen osasuna bermatzeko. Baina haurren beharrianak ikusita, azken momentuko udaleku ireki bat antolatzea erabaki genuen modu xume batean, eta polita izan zen berriz ere elkar ikustea. 2020ko udaberria etxetik loratzen ikusi

behar izan genuen, baina 2021eko Uda-berrian Olgetan-eko egonaldia zoragarria izan da, elkar ikusi dugu, jolastu, dantatu... Eta uda ez da gutxiagorako izango! Udalekuetarako, beste urte batzuetako aukera bera eskaintzen saiatu gara, baina indarrean dauden murrizketak direla eta, plazen erdia baino ezin izan dugu eskaini, eta udaleku irekietan ez da jantoki zerb-

tzurik egongo. Dena dela, aukera paregabea izango dute gure haur eta gazteek udako oporretan gozatzeko.

Udan Olgetan-era doazen haurrak, uztailean zehar, goizero-goizero ibiliko dira Durangoko txokoak alaitzen, jolasean eta kantu-kantari. Astean behin, autobusa hartu eta txango bat egingo dute hondartzara edo urtegitara.

Albeiz-era joango diren ume eta gazte-txoek aukera ezin hobea izango dute naturarekin konektatzeko. Arabako lautada zoragarria da, eta hainbat ekintza egiteko aukera izango dute: mendi bueltak, eskalada, erreka igoera...

Ibiltarietara doazen gazteek, ordea, gure inguruetako herri eta bideak ezagutzeko aukera izango dute ruta zirkular baten bitartez. Durangotik irten, Oiz mendia zeharkatu eta Lea ibarretik ibiliko dira as-tebetez.

Udaleku ireki, finko, zein ibiltarietarako izen emate guztiak eginda daude, eta plaza guztiak bete dira. Partaideen osasuna bermatzeko indarrean dauden neurriak hartuko ditugu, eta ziur gaude egonaldi ahaztezin eta ederrak izango direla aurtengoan.



Apirilaren 23a, Liburuaren Eguna



Berbaro Elkartekook, urtero-urtero, liburuak uzten ditugu herriko txokoetan, edonork hartu eta gozatzeko.

Gaur goizean, egunero bezala, mugikorrek iratzargailu malapartatua lau aldiz atzeratu ostean altxatu naiz ohetik, arrapaladan. Bart, gaueko ordu bata arte ez nuen lo hartu, esku artean

neukan eleberrian murgilduta nengoen zeharo. Liburua ustekabez aurkitu nuen pasa den hilabetean. Oinez nindoala, zerbaitekin estropezu egin eta, lurrera begiratzean, mimo handiz bil-

dutako paketetxo bat ikusi nuen. Ingu-ruan inor ez zegoela ziurtatu ondoren, niretzat hartzea erabaki nuen. Disimulan bezala, motxilara sartu eta bertatik aldendu nintzen.

Liburuak maite dut. Idazlea ezagutu ez arren, hizkuntza ezezagun batean idatzita egon arren, edo nire adin tar-tekoak ez direnei zuzendutakoa izan arren, liburua bera maite dut, liburua

**“Lurrera begiratzean,
mimo handiz bildutako
paketetxo bat ikusi
nuen”**

objektu bezala: barruan ezkututzen duena irudi batez laburtzeko gai den azala, mundu bat sortzeko ahalmena duten letrez zipriztindutako orrien usaina, istorio horiek irudikatzen dituzten ilustrazioen edertasuna, hitzen artean geratzen den irudimenerako espazioa, fantasia infinitua...

Ba al dago opari ederragorik?

Amets Menikak ordezkatzeko du Amaia Ugalde

Gure lankide Amaia Ugalde ama izan berri da eta Amets Menikak hartuko du haren lekua. Ondo etorri, Ekain txikia, eta, ondo etorri, Amets!

Durangarra izanik, ezagutuko zenuen Berbaro, ezta? Zer iruditu zaizu barrutik?

Bai, noski, ezagutzen nuen. Hasi eta oso gutxira Batzar Nagusia izan genuen eta ikusi nuen elkarteak egiten duen lana. Eroso sentitu naiz hasieratik; oso giro ona dago eta elkarri laguntzeko prest denak.

Zein da euskararen egoera Durango gazteen artean? Irakasle ibilitakoa zara, zer esango zenuke euskararekiko duten jarreraren gainean?

Zoritzarrez, egoera eskasa da. D eremuan ikasi arren, ikasketetan erabiltzeko bakarrik ikusten du askok, egunerokoan gaztelania erabiltzeko joera dute. Jarrera oso ezkorrekin egin dut topo, euskarari gorrotoa dioten nerabeekin; normalean, etxetik etorri ohi da. Badaude jarrera ona izan arren, gaztelaniara jotzeko ohitura dutenak ere, horiekin egin beharko genuke zer bait.

Durangoko Udalean euskara trebatzaile ibiliko zara, zer da landu beharrekoa? Zein sailek du euskararen trebatzeko premiarik handiena?

Gehien landu beharrekoa ahozko gaitasuna eta idatziak euskaraz sortzeko gaitasu-

na da. Premiarik handiena herritarrekin zuzenean aritzen diren langileek dute, hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

Hainbat egitasmo kudeatzen hasi zara. Itzulpenak eta zuzenketak egiteaz gain, trebakuntzak ere bai. Eroso sentitzen naiz, gogoko dut pertsonekin aurrez aurreko harremana izatea eta laguntzea. Bestalde, eratu berri den Euskara Kontseiluko kide ere banaiz.

Laster hilabete bi gurean... Zelakoak izan dira laneko lehen hileak?

Azkar pasatu zaizkit. Lehenengo as-

teetan, udaletxean ibili ginen Amaia eta biok, langile eta zinegotziak ezagutzen. Gero, zuzenketak eta itzulpenak egiten hasi nintzen, trebakuntzekin ere banabil; esan dezaket murgilduta nagoela dagoeneko.

Zer behar du Durangok euskaldunago izateko?

Jendeak euskaraz hitz egitea. Ezagutzen baino gehiago, erabileran dago arazoa. Euskararen osasuna hobetzeko beharrezkoa da hizkuntza-ohiturak aldatzea, dakitenek euskara erabiltzea.



Durango Express



Itzartu gazte taldeak antolatutako azken ekintza izan zen hau, apirilaren 24koa. Lehenengo hitzordua goizeko 9:30ean egin genuen hezitzaileok, ganoraz gosalduta eta indarrak hartzeko asmoarekin. Gazteak iritsi orduko dena prest zegoen: ibilbidea, probak, galderak, materiala, etab. Talde txikietan batu eta zitzu bizian abiatu ginen, lehenengo Andra Marira, bidean bi burusoilekin argazkia atera eta alberjinia bat lortu ondoren. Gero, Plateruena ingurura hurbildu ginen, Joseba Sarrionandiarekin topo egin genuen tokira. Berak lagundu zien gazteei Tabira auzoko elizaren izena asmatzen, Tabirako San Pedro, alegia. Bitxikeria horren ostean iritsi zen finala. Dozena erdi berakatz ale azkarren jaten zuen taldea gailenduko zen lehia estu hartan. Hala ere, topikoa errepikatze aldera, garrantzitsuena ondo pasatzea zen, euskaraz ondo pasatzea. Helburu hori bete genuen sentsazioarekin, boluntario taldeak elkarrekin bazkaldu genuen. Izan ere, ba al dago taldea egiteko modu hobetik? Ziur aski bai, baina, gure kasuan behintzat, laguntasun giroa da hilean behin asteburuko planei uko egiteko arrazoi nagusia.

Oholtzaratu

Iker Maguregi Saiz · #KLAK!-eko dinamizatzailea

Maiatzaren 22an musika talde hasiberriek egun osoko egitaraua duen musika jaialdi batean parte hartuko dute.

Askori pasa zaigu burutik, noizbait, musika talde bat sortzea, baina egia da hainbat baliabide behar direla (ensaio lokala, instrumentuak, mikroak, anpliak...) eta horiek lortzea ez dela bate-re erraza. Horrelako ametsak gorpuztea posible egin dute, beste behin ere, gure inguruko gaztetxeek, ensaio lokalak bezalako espazio publikoak sortuta. Kasu honetan, Durangoko Sorginola gaztetxea izan da protagonista, eta jaialdian parte hartuko duten zenbait talderen lehen urratsak, auzolanaren bitartez, duela ia bi urte eraikitako musika gelan eman dituzte.

Horren guztiaren aurrean, gazte musikari hasiberriei oholtzaratzeko aukera ematea bururatu zitzaigun. Hortik jaio zen "Oholtzaratu" jaialdiaren izena. Batez ere, bagenekielako lehenengo kontzertuak pauso handiak direla, eta, gainera, Covid19ak eragindako osasun egoera dela eta, kontzertuak lortzea inoiz baino zailagoa izaten ari dela. Garrantzitsua iruditu zaigu emakume taldeei eta talde gazteenei lehentasuna ematea, gehienbat, musika munduan gutxitan izaten direlako protagonista. Horrekin, #KLAK! egitasmo-tik, gazte euskaldun musikarien saretzea bultzatu nahi dugu. Egutegian kontzertu eguna borobil-duta izatea taldeari gogor heltzeko aitzakia izan daiteke. Esateko asko dutela argi daukagu, eta, oraingoan behintzat, beraien aldarrikapenen bozgorailu izatea gustatuko litzaike.



Larrosa eta Arantza

Larrosa

Kirol entrenamenduak gehienetan erdaraz izaten dira, eta entrenatzaileei zuzendutako ikastaroak antolatu badira ere, ez dute emaitza onik izan. Ez dugu asmatu oraindik, ez da erraza edo ez dago benetako borondaterik.

Oraingoan, Durangoko Rugby taldeak, eta, hain zuzen ere, bertako jokalariei ohi Iñigo Beitiak, Veronika Legorburuk eta Eneko Aretxagak martxan jarri duten ekimena txalotuko dugu.

Zelaian jokalariei izatetik, partiduen nondik norakoak YouTube plataformatik euskaraz kontatzera jauzia egin dute. Ohituta gaude horrelako emankizunak erdaraz entzutera. Beraz, asko da, edo ez da gutxi, holako ekimenak izatea, eta sustatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Arantza

Bizimodu ohitura asko aldatu du COVIDak, tartean, kanpoan jateko edo afaltzeko aukera ere murriztu zaigu. Aldi berean, ugaritu egin da janaria eta erosketak etxean jasotzeko eskaintza.

Badira modu asko eskaintza horren berri izateko, eta ohikoena, errazena, sarean kuxkuxeatu eta eskaria egitea da.

Oilaskoa patatekin aukera ederra da, alegia. **Pioppio** klasiko bat da. Klasiko horrek webgunea erdara hutsan du, ez du EU aukerarik ematen. Esaldi bakarra euskaraz: "Oilasko erretegia eta eramateko janaria 1989tik".